



**IRIZPEN ZK.: D20-024**

**IRIZPENA, POLIZIA-JARDUNETAN JASOTZEN DIREN DATU PERTSONALAK HIRUGARRENEI KOMUNIKATZEARI BURUZKOA**

**AURREKARIAK**

**LEHENENGOA:** [...]ko Udaleko alkateak irizpen bat eskatu dio Datuak Babesteko Euskal Bulegoari, goiburuan adierazitako gaiari buruz. Eskari-idazkiak honako hau dio:

*«[...]ko Udalak bere Udaltzaingoan zuzenean jaso ditu [...] SAREN eskari batzuk. Eskari horietan, Udaltzaingoak bizikidetzaz arazo batzuen inguruan etxebizitza jakin batzuetan egindako jardunak eskatzen ditu [...]SAK, hain zuzen ere izen-abizenekin eta NANarekin identifikatutako maizter batzuei dagokienez; halaber, polizia-jardunen erreferentziak ere identifikatzen dira.*

*[...] Udalak galdera hau egiten du, jakiteko ea [...]k agiri honetan agertzen den moduan eskatutako informazioa bidaltzea zuzenbidearen arabera ondo dagoen, eta ea betetzen den aplikatu beharreko legeria, batez ere datu pertsonalak babesteari buruzko araudia eta segurtasun-eskema nazionala; eta, hala badagokio, kontuan hartu behar diren kautelak ere bai».*

Kontsultarekin batera [...] SAREN hiru idazki doaz. Idazki horietan, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailarekin egindako lankidetzaz hitzarmenaren arabera gizarte- alokairuko etxebizitzak kudeatzen dituela azaldu ostean, gizarte- alokairuko hiru etxebizitzatan egindako polizia-jardunak eskatzen ditu.

[...] SAREN hiru informazio-eskarietan azaltzen denez, bizikidetzaz arazoak izan dira arrazoia, eta Udalari jakinarazten zaizkio denbora-epea, helbidea eta maizterren nortasuna (izena, abizenak, NANA edo polizia-jardunaren erreferentzia-zenbakia), eskatzen den informazioa zedarrizteko.

**BIGARRENA:** Otsailaren 25eko 2/2004 Legearen, Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzkoaren 17.1 artikuluko n) apartatuak honako eginkizun hau esleitzen dio Datuak Babesteko Euskal Bulegoari:

*«Lege honetako 2.1 artikuluko herri-administrazioek, erakundeek eta korporazioek datu pertsonalen babesari buruz egiten dizkioten galderei erantzutea, eta lege honen aplikazioaren pean dauden datu pertsonalen tratamenduari buruz beste pertsona fisiko edo juridiko batzuek egiten dizkioten galderei erantzutea».*

**HIRUGARRENA.** - Bulegoak [...]ko Udaleko datuak babesteko ordezkariari azaldu zionez, [...] SAK informazio gehiago eman beharko zuen, datu pertsonalen komunikazio edo lagapena datu pertsonalak babesteko araudiarekin bat datorren ala ez baloratu ahal izateko. Zehazki, Udalari eskatu zitzaion [...]k zehaztu zezala zein informazio eskatzen zitzaion Udaltzaingoiari, behar bezala justifikatu ziezaiola Udalari zein arrazoirengatik eskatzen zuen



informazio hori, eta azaldu zezala sozietate publikoak zein lege-babes zeukan Udaltzaingoari informazio hori eskatzeko eta harengandik jasotzeko.

Hilabete baino gehiago igarotakoan, [...]ko Udaleko datuak babesteko ordezkariak Bulegoari jakinarazi dionez, [...] SAK ez dio erantzun informazio gehigarriaren eskariari.

Beraz, araudia kontuan hartuta, Datuak Babesteko Euskal Bulegoari dagokio egin diguten galderari erantzuteko irizpena egitea.

## KONTUAN HARTZEKOAK

### I

Datuak Babesteko Euskal Bulegoari galdetu zaio ea [...] SAK agertzen den moduan eskatutako informazioa bidaltzea zuzenbidearen arabera ondo dagoen, eta ea betetzen den aplikatu beharreko legeria, batez ere datu pertsonalak babesteari buruzko araudia eta segurtasun-eskema nazionala; eta, hala badagokio, kontuan hartu behar diren kautelak ere bai.

Bulego honek erantzuna emango dio egindako kontsultari, datuak babesteko oinarrizko eskubidearen ikuspuntutik (2/2004 Legearen 17.1 artikulua).

Udalak [...] SAri egindako informazio-eskariak gizarte-alokairuko hiru etxebizitzatan egindako polizia-jardunei buruzkoak dira. Horretarako, [...] SAK etxebizitza horien helbidea ematen du, bai eta maizterren nortasunari buruzko datuak ere; gainera, polizia-jardun horiek zein denbora-epetan egin diren zehazten du.

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren (datu pertsonalen tratamenduari horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzko Erregelamendua) 4.1 artikuluan jasota dago datu pertsonalen definizioa. Hona hemen definizioa:

*«“Datu pertsonalak”: pertsona fisiko identifikatu edo identifikagarri («interesdun») bati buruzko informazio guztia; pertsona fisiko identifikagarria da zuzenean edo zeharka, eta batez ere identifikatzaile baten bitartez, identifika daitekeen pertsona oro; identifikatzaile hori izen bat izan daiteke, identifikazio-zenbaki bat, kokapen-datuak, online identifikatzaile bat edo pertsona horren nortasun fisikoari, fisiologikoari, genetikoari, psikikoari, ekonomikoari, kulturalari edo sozialari buruzko elementu bat edo gehiago».*

Bestalde, Udaltzaingoak, polizia-jardunetan pertsona jakinei buruzko informazioa eskatzean nahiz, egokia izanez gero, pertsona horien informazioa hirugarrenei komunikatzean, datu pertsonalen tratamendua egiten du, Erregelamendu Orokorraren 4.2) artikulua definitzen duenez:

*«datu pertsonalen gainean edo datu pertsonalen multzoen gainean egiten den edozein eragiketa eta eragiketa-multzo, prozedura automatizatuak erabilia zein erabili gabe, hala nola: datu-bilketa, erregistratzea, antolatzea, egituratzea, kontserbatzea, egokitzea edo aldatzea, ateratzea, kontsultatzea, erabiltzea, transmisioz lagatzea, hedatzea edo irispidean jartzeko beste edozein forma, datuak alderatzea edo interkonektatzea, mugatzea, ezabatzea edo suntsitzea».*



Kontsultaren xede den kasu zehatzean hirugarren batek ([...] SA) eskaria egiten dio [...]ko Udaltzaingoari, sozietate horrek kudeatutako gizarte-alokairuko etxebizitzetan maizter diren pertsona batzuen polizia-jardun batzuei buruz informazioa emateko. Laburbilduta, hirugarren horrek datuen «komunikazio» edo «lagapen» bat eskatzen zuen.

Erregelamendu Orokorrak 6.1 artikuluan ezartzen du zein kasutan dagoen legitimatuta datu pertsonalen tratamendua:

a) Interesdunak bere datu pertsonalak tratatzeko adostasuna eman badu helburu zehatz bati edo gehiagori begira.

b) Tratamendua beharrezkoa bada interesduna parte den kontratu bat gauzatzeko edo interesdunaren eskariz kontratuaren aurreko neurriak aplikatzeko.

c) Tratamendua beharrezkoa bada tratamenduaren arduradunari aplikagarria zaion lege-eginbeharra betetzeko.

d) Tratamendua beharrezkoa bada interesdunaren edo beste pertsona fisiko baten bizi-interesak babesteko.

e) Tratamendua beharrezkoa bada interes publikoaren izenean edo tratamenduaren arduradunari esleitutako botere publikoen izenean burututako eginkizun bat betetzeko.

f) Tratamendua beharrezkoa bada tratamenduaren arduradunak edo hirugarren batek bilatzen dituen interes legitimoak erantzuteko, non eta interes horien gainean ez dauden datu pertsonalen babesa eskatzen duten interesdunaren interesak edo oinarritzko eskubide eta askatasunak, bereziki interesduna haur bat denean. f) letran xedatutakoa ez zaio aplikatuko agintaritza publikoek beren eginkizunetan dihardutela egindako tratamenduari.

Erregelamendu Orokorren 6.3 artikulua ezartzen duenez, «1. zenbakiko c) eta e) letretan adierazitako tratamenduaren oinarria ezarri beharko du Batasuneko zuzenbideak edo tratamenduaren arduradunari aplikatzen zaion estatu kideetako zuzenbideak».

3/2018 Lege Organikoak, abenduaren 5ekoak, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzkoak, 8. artikuluan (Datuen tratamendua, legezko betebeharra, interes publikoa edo botere publikoen egikaritzea direla-eta), honako hau ezartzen du:

*«1. Datu pertsonalen tratamendua arduradunari **legez eskatzen zaion betebeharr** batean oinarrituko bada –(EB) 2016/679 Erregelamenduaren 6.1.c) artikulua xedatutakoarekin bat–, nahitaez **Europar Batasuneko zuzenbidearen arau batek edo lege mailako batek horrela aurreikusi beharko du**; arau horrek tratamenduaren baldintza orokorrak eta tratatuko diren datu motak zehaztu ahalko ditu, bai eta lege-betebeharraren ondorioz egin beharko diren lagapenak ere. Halaber, arau horrek tratamendurako baldintza bereziak ezarri ahalko ditu; besteak beste, segurtasunerako neurri osagarriak edo (EB) 2016/679 Erregelamenduaren IV. kapituluaren ezarritako beste batzuk hartu beharra.*

*2. Datu pertsonalen tratamendua interes publikoan oinarritzeko edo arduradunari (EB) 2016/679 Erregelamenduaren 6.1.e) artikulua xedatutakoaren arabera esleitutako botere publikoen izenean burututako eginkizunetan oinarritzeko, **lege mailako arau batek esleitutako eskumenaren ondorio izan beharko du** tratamenduak».*



Beraz, datu pertsonalen tratamendu orok legitimatuta egon behar du lehenago transkribatu den Erregelamendu Orokorren 6 artikuluko kausetariko bat dela medio.

Eskatutako lagapena legitimatzen duten kausen artean lehenengoa interesdunaren adostasuna da, eta kasu honetan, antza denez, ezin da hori aplikatu. Horregatik, zehaztu beharko da tratamendua legitimatzen duten gainerako kausetariko bat dagoen ala ez.

Kontsultan ematen den informazioan ez dago argi zein xedetarako eskatzen dizkion [...] SAK Udaltzaingoari [...] udalerriko gizarte-alokairuko etxebizitza batzuen maizterren inguruan egindako jarduketak.

[...] SAK Udaltzaingoari azaltzen dionez, gizarte-alokairuko etxebizitzak kudeatzen ditu lankidetzak-hitzarmen baten arabera, eta polizia-jardunei buruzko informazioa behar du bizikidetzak-arazo batzuk daudelako.

Komunikazio horrek babesa izan beharko du Erregelamendu Orokorren 6.1 artikuluan jasota dauden oinarri juridikoetako batean.

Informazio gehiagorik ezean aztertuko dugu [...] SA sozietate publikoa eraentzen duen araudia, zehazki gizarte-alokairuko etxebizitzaren arloan duen jardueraren eremua.

[...] SA sozietate publikoa eraentzen du, besteak beste, martxoaren 29ko 65/2011 Dekretuak, [...] SA sozietatearen partaidetzak erosi eta sozietate publikoa sortzea erabakitzen duenak (EHAA, 2011-04-01ekoa, 64. zk.).

Dekretu horretan erabakitzen da merkataritzako sozietate publiko anonimo bat sortzea. Sozietateak [...] SA izena hartuko du, eta eraketa unean Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa izango du bazkide bakarra. Halaber, Sozietatearen estatutuak onartzen dira, eta Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailari atxikirik gelditzen da (gaur egun Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailari atxikirik).

Dekretu horretan onartutako eta abenduaren 9ko 230/2014 Dekretu bidezko baimenaren arabera aldatutako Estatutuen arabera (EHAA, 2014-12-18koa, 241. zk), [...] SA sozietatearen xedeak honako hauek dira, besteak beste:

«[...]»

f) Alokairu-araubideko etxebizitzak **kudeatzea**. [...]

h) Edozein tituluren bidez atxikitzen zaizkion etxebizitzak eta zuzkidura-bizitokiak **kudeatzea**, bai errentamenduan, bai erabiltzeko aldi baretako lagapenean, hurrenez hurren. [...]

k) [...] SA sozietate publikoa, *Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legearen 24.6 artikuluan xedatutako ondorioetarako, **tresna gisako bitarteko propio eta zerbitzu tekniko da, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioarentzat**, kapital sozialaren zati bat duten erakundeentzat eta erakunde autonomiadun eta haien mendeko gainerako ente publikoentzat.*

*Sozietatearen kapital guztia publikoa izango da, eta lanaren zati handiena sozietate hori bitarteko propio eta zerbitzu tekniko gisa duten erakundeekin egingo du.*

*Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko sailek eta tresna propio eta zerbitzu tekniko gisa duten beste erakundeek sozietatearen xedearekin zerikusia duten lan, zerbitzu eta jarduerak agindu ahal izango dizkiote, **betiere horrek administrazio-ahala erabiltzea ez badakar.***



*Sailak edo erakunde gomendatzaileak, kudeatzeko gomendioaren bitartez, lanak enkargatzen badizkio sozietateari, haiek ezarritako jarraibideen arabera egin beharko ditu.*

*Kudeaketa-gomendio horiek instrumentalak dira, kontratuz kanpokoak, eta, hortaz, ondorio guztietarako, barnekoak eta mendekoak dira. Sozietateak nahitaez bete beharko ditu, eta sozietatea atxikita dagoen Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren sailaren arau organikoek adierazitako organoak nahikotasun ekonomiko-finantzarioaren irizpideari jarraiki ezarritako tarifak aintzat hartuta ordainduko dira, sozietatea bitarteko propiotzat eta zerbitzu teknikitzat duten gainerako erakundeen parte-hartzearekin. [...]»*

[...] SAK Udaltzaingoari egiten dion informazio-eskarian orokorrean aipatzen da sozietate publikoaren eta Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren arteko hitzarmena, zein arabera [...] SAK gizarte-alokairuko etxebizitzak kudeatzen baititu.

Baina [...] SAK hitzarmenaren kopiarik ez du aurkeztu, eta Bulegoak ez du hitzarmen hori eskuraterik.

Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak [...] SA sozietate publikoari agindutako enkargua, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio orokorraren jabetzakoak diren errentamendu-araubidean lagatuko babes publikoko etxebizitzak administratzeko, kudeatzeko eta kontserbatzekoa, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saileko zerbitzu-zuzendariaren 2018ko irailaren 11ko Ebazpenaren bidez arautzen da (Ebazpen hori [...]ren webgunean dago argitaratuta, Gardentasuna-Oinarrizko informazio instituzionala atalean, bai eta Euskadiko Kontratazio Publikoko Plataforman ere).

[https://www.contratacion.euskadi.eus/w32-kpeperfi/es/contenidos/anuncio\\_contratacion/expiaso13836/es\\_doc/adjuntos/resolucion\\_definitiva2.pdf](https://www.contratacion.euskadi.eus/w32-kpeperfi/es/contenidos/anuncio_contratacion/expiaso13836/es_doc/adjuntos/resolucion_definitiva2.pdf)

Ebazpenarekin batera eranskin bat doa, zeinean agertzen baita enkarguaren xede diren errentamendu-araubideko etxebizitzaren zerrenda.

Ebazpen horren bigarren ebazpenean zerrendatzen dira Sozietateari eskatzen zaizkion zereginak, honela:

*a) Etxebizitza-adjudikaziodunek ordaindu beharrekoen bilketa (...)*

*b) Eraikinaren azterketa teknikoa; jabeen kidegoak eratzeari; eta kidego-zerbitzuak funtzionamenduan jartzeari. Lehen errentariak iritsi aurretik egin beharko ditu horiek guztiak.*

*c) Errentarien edo kidegoen deiei, kontsultei eta erreklamazioei, halakorik balego, arreta, orientabideak eta konponbideak eskaintzea.*

*d) Kidegoak edo administratzaileak gainbegiratzea, mantentze-lanen arloko betekizunei dagokienez, eta bizikidetzaren, kohesioaren eta integrazioaren aldeko ekintzak bultzatzea.*

*e) Gizarte-arloko laguntzak eta esku-hartzeak, behar jakin batzuk dituzten errentarien kasuan; orientabideak, laguntza eta koordinazioa eskaintzea esleipen zuzenetan eta birkokatzeetan; eta gizarte-proiektuak garatzea etxebizitza-arloan.*

*f) Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioaren solaskidea eta bitartekaria izatea, errentamendua dela kausa, maizterrekin eta kidegoekin izan beharreko harremanean.*

*g) Ez ordaintzeak kudeatzea, premiamendu bidez diru-bilketa abiarazi arte edo auzibidera jotzea erabaki arte, maizterrei ezordaintzeak edo maizterren utzarazpena erreklamatzeko. [...] SAKen kudeaketa-lanek barnean hartuko dute espediente*



judizialak abiarazteko behar den dokumentazioa administrazioaren zerbitzu edo organo eskudunari ematea, eta behar den laguntza eskaintzea eta modu koordinatuan jardutea izapideok iraun artean.

h) Etxebizitzen mantentze- eta kontserbazio-lanez arduratzea, laugarren baldintzan xedatutakoarekin bat.

i) Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailari hiru hilean behin eta sail horrek adierazitako moduan, edukiarekin eta xehetasunekin jakinaraztea eragin ekonomikoko alderdi guztiak, enkarguaren ondoriozko gastuak eta diru-sarrerak zuzen kontabilizatzeko nahitaez ezagutu behar diren alderdi guztiak. Hiru hilean behingo txostenak etxebizitzen bizigarritasun- eta okupazio-egoera ere jasoko du, baita, orohar, enkarguaren jarraipena eta betearazpena egiteko garrantzitsua gerta daitekeen beste edozein alderdi ere. Txosten horiez gain, gerta daiteke txosten osagarriak egin behar izatea, orokorrak nahiz kudeaketako alderdi jakin bati buruzkoak, baldin eta Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saileko Plangintza eta Antolaketako zuzendariak hala eskatzen badu.

[...] SA SOZIJETATE PUBLIKOAK, enkarguko jarduerak gauzatzean, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saileko Etxebizitzako Plangintzaren eta Prozesu Eragileen Zuzendaritzak emandako jarraibideen arabera jokatu du».

Ebazpen horren hirugarren ebazpenean azaltzen da Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak zein konpromiso hartzen dituen, [...] SAK enkarguko zerbitzugintzak behar bezala egin ditzan:

«a) Etxebizitzako lurralde-ordezkaritzak arduratuko dira alokairuko etxebizitzak esleitzeaz, errentamendu-kontratuak sinatu aurreko jakinarazpenez, errentamendu-kontratuak osatzeaz eta esleipendunek kontratuok sinatzeko egin behar diren izapideez.

Horiek guztiak egin beharko ditu maizterrak lehen kontratua sinatzean, baina baita hurrengoetan ere, baldin eta baleude.

b) Enkargua gauzatzeko behar den guztiaren berri ematea [...] SAri, batik bat, errentamendu-kontratuaren beharrezkoak diren datuei buruz: titularrak, kontratuaren hasiera- eta amaiera-data, errentak berritzeko datak, errenta-zenbatekoak eta eguneraketak, banku-helbideratzearen datuak eta legeria aplikagarria.

c) Maizterrei errentak edo gastuak ordaintzeko erreklamazioa, premiamendu bidez edo auzibidera joz, eta, dagokionean, utzarazpena eskatzea.

d) Etxebizitzen jabea den aldetik, dagozkion betekizun guztiak bere gain hartzea, berriaz [...] SA SOZIJETATE PUBLIKOARI agindutakoak salbu. Sailak, halaber, bere gain hartuko ditu jabetza-gastuak; tartean, kidegoek ados ditzaketan ezohiko derramak.»

Eta bosgarren ebazpenak ezartzen duenez, enkarguak barne hartutako higiezin zerrenda, Ebazpenaren eranskinean jasota dagoena, hiru hilean behin eguneratuko da Etxebizitzako Plangintzaren eta Prozesu Eragileen Zuzendaritzak horri buruzko ebazpena emanda.

Araudi horren arabera, [...] SA sozietate publikoak gomendatuta dauka edozein tituluren bidez atxikitzen zaizkion etxebizitzak eta zuzkidura-bizitokiak kudeatzea, bai errentamenduan, bai erabiltzeko aldi baterako lagapenean, hurrenez hurren, Euskal



Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrarentzat berezko tresna eta zerbitzu tekniko izaera duen aldetik.

Eta [...] SAri gomendatutako zereginetatik ondorioztatzen denez, eta kontuan hartuta zeregin horietatik ez dela administrazio-ahalik sortzen, Bulegoaren ustez ez dago oinarri juridikorik datu pertsonalen tratamendu horretarako, hau da, sozietate publikoari Udaltzaingoak egindako polizia-jardunetan agertzen den informazio pertsonala komunikatzeko edo lagatzeko.

Informazio gehiagorik eduki ez arren, Bulegoaren ustez, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak (zeinari atxikita baitago [...] SA) Udaltzaingoi zuzenean eskatu ahalko lioke legeak esleitzen dizkion eskumenak egikaritzeko beharrezkoa eta ezinbestekoa duen informazio pertsonala. Hori ondorioztatzen da Sailak berak [...] SArentzako enkarguan bere gain hartzen dituen konpromisoetan, lehenago ere jaso diren horietan.

Halaber, kontuan izan behar dugu datu pertsonal horiek Udaltzaingoak jaso dituela bere polizia-jardunetan. Beraz, 3/2018 Lege Organikoaren 27. artikuluan arau-hauste eta zehapen administratiboekin loturiko datuen tratamenduari buruz ezartzen dena aplikatu beharko litzateke, baita 3/2018 Lege Organikoaren 10. artikuluan, izaera penaleko datuen tratamenduari buruzkoan ezartzen dena ere:

*«27. artikulua. Arau-hauste eta zehapen administratiboekin loturiko datuen tratamendua.*

*1. (EB) 2016/679 Erregelamenduaren 86. artikulua ondoeetarako, arau-hauste eta zehapen administratiboekin loturiko datuen tratamendua, arau-hauste eta zehapen haiekin zerikusia duten erregistroen mantentzeak barne, honako hauek betetzeko exijentzia dakar:*

*a) Tratamendu horien arduradunak organo eskudunak izatea zehapen-prozedura bideratzeko, arau-hausteak aitortzeko edo zehapenak jartzeko.*

*b) Tratamendua zer helburu duen, hori lortzeko behar diren datuen eta ez gehiagoren tratamendua izatea*

**2. Aurreko apartatuan aurreikusitako baldintzetako bat betetzen ez denean, arau-hauste eta zehapen administratiboekin loturiko datuen tratamendurako interesdunaren adostasuna izan beharko da edo lege mailako arau batek baimendu beharko du, zeinaren bidez arautuko baitira, hala badagokio, ukituen eskubide eta askatasunetarako berme osagarriak.**

*3. Aurreko apartatuetan jasotako kasuetan ez beste guztietan, abokatuek eta prokuradoreek eta ez beste inork egin ahalko dituzte arau-hauste eta zehapen administratiboekin loturiko datuen tratamendua, eta soilik tratamenduaren helburua bada haien bezeroek emandako informazioa biltzea beren eginkizuna burutzeko.*

*10. artikulua. Izaera penaleko datuen tratamendua.*

*1. Baldin eta kondena eta arau-hauste penalei eta horiekin loturiko prozedura eta kautelazko eta segurtasunezko neurriei buruzko datu pertsonalen tratamendua ez badu helburu arau-hauste penalak prebenitzea, ikertzea, detektatzea edo epaitzea edo zehapen penalak betearaztea, **bakarrik egin ahalko da Batasunaren zuzenbidearen arauen, lege organiko honen edo lege mailako beste arau batzuen babesean.** [...]».*



Beraz, eskatutako informazio pertsonala arau-hauste eta zehapen administratiboei buruzkoa bada edo arau-hauste eta kondena penalekin lotutako datu pertsonalei buruzkoa bada edo, bestela, horiei lotutako kautelazko eta segurtasunezko prozedura eta neurriekin lotutako datu pertsonalei buruzkoa bada, eta helburua ez bada arau-hauste penalak prebenitzea, ikertzea, detektatzea edo epaitzea edo zehapen penalak betearaztea, datu pertsonalen tratamendu hori 3/2018 Legearen 27. eta 10. artikuluetan hurrenez hurren jasotako mugen mende egongo da.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko azaroaren 18an